



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko maiatzaren 3an

33 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- 1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (3. or.).
- 1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkarte-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (5. or.).
- Etxe langileen gizarte- eta lan-auurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (7. or.).
- Iruñeko kongresu jauregi-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (7. or.).
- Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (8. or.).
- Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espeditari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (10. or.).
- Nafarroako Gobernuak ugatzari buruzko bileran parte hartu ez izanari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (11. or.).
- Musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta udal Musika eskolen finantziarioari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (12. or.).
- Nafarroa minusbaliatuen lan-integrazioarako egitarauen barnean sartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (12. or.).
- Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko Nafarroa hautatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (13. or.).
- Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketek garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (15. or.).
- Arte-monumentuak zaharberritzei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (16. or.).
- Nafarroako Museoari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (16. or.).
- Zaharberritze lanak egiteko laguntzak edo dirulaguntzak emateari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (18. or.).

- Ibaitako ekosistemak kontserbatzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat Parlamentuari igortzeari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (18. or.).
- Lotzako putzua babesturiko naturgune gisa deklaratzeko espedientea hasi zezan Nafarroako Gobernuak pre-miatzen zuen erabakia betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (20. or.).
- Esako Udaleko zenbait erabakiren aurka egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (21. or.).
- Eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (22. or.).
- Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (23. or.).
- Nafarroako naturguneei eta habitatei buruzko Planaren prestaketa dela-eta, Ingurugiro Departamentuak buruturiko lanei buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (25. or.).
- Arrotxapeako Osasunetxeari buruzko galdera. Foru Diputazioen erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1997an dragatze-lanak, eta ibaien ibilguen eta erreken garbitze-lanak egiteko dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketak, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

Ondoko 75 eskaera hauek aurkeztu dira. Hona herrien alfabeto-ordenean antolatuta:

| HERRIA | AURREIKUSITAKO JARDUKETA | ESKAERA DATA |
|-----------|---------------------------|--------------|
| Abartzuza | Iranzu ibaia dragatzea | 97-07-25 |
| Andosilla | Ega ibaia dragatzea | 96-06-15 |
| Aratzuri | Juslapeña ibaia dragatzea | 97-08-06 |
| Arbizu | Leziza erreka dragatzea | 97-08-20 |
| Arizkun | Baztan ibaia dragatzea | 96-08-01 |

| | | |
|-------------|----------------------------|----------|
| Arruazu | Arakil ibaia dragatzea | 96-06-06 |
| Armañanzas | Linares ibaia dragatzea | 97-08-06 |
| Beire | Cidacos ibaia dragatzea | 97-08-06 |
| Betelu | Araxes ibaia dragatzea | 97-08-02 |
| Burlata | Arga ibaia dragatzea | 97-04-09 |
| Burutain | Mediano ibaia dragatzea | 96-08-05 |
| Cabanillas | Errekak dragatzea | 97-98-14 |
| Caparroso | Aragón ibaia dragatzea | 96-10-15 |
| Cárcar | Ega ibaia dragatzea | 96-06-19 |
| Kaseda | Aragón ibaia dragatzea | 97-10-14 |
| Cintruénigo | Alhama ibaia dragatzea | 96-07-06 |
| Desojo | Errekak dragatzea | 97-03-07 |
| Domeñu | Salazar ibaia dragatzea | 96-12-11 |
| Busto | San Pedro erreka dragatzea | 97-02-27 |
| Eneritz | Robo ibaia dragatzea | 97-05-02 |
| Enderitz | Ultzama ibaia dragatzea | 97-07-22 |
| Espartza | Salazar ibaia dragatzea | 97-10-20 |
| Ezkirotz | Elortz ibaia dragatzea | 97-02-18 |
| Etxauri | Arga ibaia dragatzea | 97-11-06 |
| Galbarra | Ega ibaia dragatzea | 96-06-02 |
| Gartziriain | Juslapeña ibaia dragatzea | 97-08-07 |
| Girgillao | Arga ibaia dragatzea | 96-06-06 |
| Ibero | Arakil ibaia dragatzea | 97-12-22 |
| Imarkoain | Elortz ibaia dragatzea | 97-10-19 |
| Irurita | Errekak dragatzea | 96-08-01 |
| Iturmendi | Errekak dragatzea | 97-04-03 |
| Lakuntza | Arakil ibaia dragatzea | 96-02-10 |
| Larraga | Arga ibaia dragatzea | 96-11-11 |
| Larraia | Errekak dragatzea | 97-06-19 |
| Lerín | Ega ibaia dragatzea | 96-06-11 |
| Ledeá | Irati ibaia dragatzea | 96-08-14 |
| Legarda | Errekak dragatzea | 97-11-13 |

| | | |
|---------------------|--|----------|
| Los Arcos | Odrón ibaia dragatzea | 96-08-10 |
| Marañón | Ega ibaia dragatzea | 96-06-21 |
| Legaria | Ega ibaia dragatzea | 97-05-23 |
| Martzilla | Aragón ibaia dragatzea | 97-06-30 |
| Mélida | Errekak dragatzea | 96-09-03 |
| Mendaza | Errekak dragatzea | 97-02-12 |
| Milagro | Aragón ibaia dragatzea | 97-06-24 |
| Mues | Odrón ibaia dragatzea | 97-07-18 |
| Murieta | Ega ibaia dragatzea | 97-06-97 |
| Muru-Arte-derreta | Errekak dragatzea | 97-05-05 |
| Muru-Asterain | Errekak dragatzea | 97-06-19 |
| Muruzabal | Robo ibaia eta errekak dragatzea | 97-09-17 |
| Obanos | Robo ibaia eta errekak dragatzea | 97-04-21 |
| Olazti | Burunda ibaia dragatzea | 96-10-28 |
| Ororbia | Errekak dragatzea | 97-07-30 |
| Orotz-Betelu | Irati ibaia dragatzea | 97-04-15 |
| Piedramillera | Errekak dragatzea | 97-02-18 |
| Gares | Cidacos ibaia eta errekak dragatzea | 97-09-22 |
| Zangoza | Aragón ibaia dragatzea | 96-10-31 |
| Santsol | Linares ibaia dragatzea | 97-02-18 |
| Santakara | Aragón ibaia dragatzea | 97-02-17 |
| Doneztebe | Bidasoa eta Ezkurra ibaiak dragatzea | 97-06-26 |
| Sesma | Errekak dragatzea | 97-06-15 |
| Sorlada | Errekak dragatzea | 97-01-31 |
| Sunbilla | Bidasoa ibaia dragatzea | 97-07-01 |
| Tafalla | Cidacos ibaia dragatzea | 97-07-01 |
| Tiebas-Arrizabalaga | Errekak dragatzea | 97-05-05 |
| Torres del Río | Errekak dragatzea | 97-07-14 |
| Ubago | Errekak dragatzea | 97-07-29 |
| Ukar | Robo ibaia dragatzea | 97-05-02 |
| Uharte Arakil | Arakil ibaia dragatzea | 96-06-06 |
| Ultzama | Ultzama ibaia dragatzea | 97-05-12 |
| Urdazubi | Ugarana eta Lapitxuri ibaiak dragatzea | 07-06-02 |
| Uskartze | Salazar ibaia dragatzea | 97-10-02 |
| Uterga | Robo ibaia dragatzea | 97-05-05 |
| Biloria | Ega ibaia dragatzea | 96-06-01 |
| Atarrabia | Ultzama ibaia dragatzea | 97-05-30 |
| Zolia | Sadar ibaia dragatzea | 97-09-31 |

Normalean ez dago obrak egiteko aldez aurreko aurrekonturik, salbuespen batekin: jarduketa kontratatutako makinekin egin den herrietan aurrekontua jasotzen da oroit-idazki tekniko balioetsian.

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako bakoitzak?

| Herria | Aurrekontua |
|---|-------------|
| Los Arcos | 2.487.850 |
| Caparroso | 222.700 |
| Larraia | 268.375 |
| Legarda | 88.825 |
| Gares | 202.850 |
| Uterga | 52.600 |
| Mendaza | 68.350 |
| Sorlada | 79.375 |
| Busto | 136.075 |
| Eskirotz | 52.600 |
| Imarkoain | 93.550 |
| Ororbia | 150.250 |
| Santsol | 276.875 |
| Muruzabal | 162.850 |
| Eneritz | 181.750 |
| Milagro | 99.850 |
| Sesma | 429.025 |
| Obanos | 990.975 |
| Baztan Ibarra (Arizkun-Irurita) | 475.325 |
| Muru-Asterain | 80.950 |
| Ukar | 254.200 |
| Tiebas-Arrizabalaga | 315.625 |
| Muru Artederreta | 90.400 |
| Caparroso-Martzilla (S.Lobera-Sotillos) | 967.350 |
| Zangoza | 4.458.703 |
| Lakuntza | 2.078.062 |
| Burlata | 2.432.735 |
| Atarrabia | 1.370.519 |
| Betelu | 3.965.236 |

3. Zein egoeretan daude hasitako lanak? Jarduketa horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko geratu al da?

Bigarren galderan adierazitako lanak 1997an bukatu zituzten. Gaur egun, 1998ko ekitaldirako dragatu-kanpainaren barruan ari dira lanean; kanpaina hau, lehenago aipatutako erabiltzeko dau-

den tresnen arabera landuko da. Jarduketa-ibilgu-ko emarien, lanean ari diren ingurunearen eta honekin mugan dauden finken edo lurzatie sarbi-dearen, eta lana egiteko erabil daitezkeen bitarteko-koen arabera egiten dute lan.

Kanpaina, agorraldi-hilabetetan areagotu egiten da, lehenago aipatutakoaren arabera; hau da, emari txikiak, landutako finkak eta lanak egiterakoan uholde-arrisku txikiagoa; horretarako kontratatutako makinaren bidez handituz erabil daitezkeen bitartekoak.

4. Zein izan da Foru Agindu honetako dirulaguntzetarako utzi den guztizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

Kanpainako guztizko gastua, benetako prezio-etan, 22.533.830 pezetara heldu da. Hala ere, Toki Entitateei eta Elkartze Erakundeei, 431/1997 Foru Aginduaren bidez onartu eta indarrean dauden tarifa ofizialen %50a dirulaguntza gisa eskaintzen zaienez, horretara zuzendutako guztizko gastua, kopuru horren %75ari dagokio gutxi gorabehera, hau da, 17 milioi pezeta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erreglamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erreglamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1997an ibaiak leheneratzeko toki-entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketa, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

Ondoko 19 eskaera hauek aurkeztu dira:

| HERRIA | AURREIKUSITAKO JARDUKETA | ESKAERA DATA | AURREK. |
|-------------|---|--------------|------------|
| Orbaitzeta | Ibaiertzak bereoneratzea. Irati ibaia, Aezkoa | 97-02-21 | 10.461.517 |
| Larrion | Uholdeei aurre hartzea. Urederra ibaia | 97-04-01 | 7.707.067 |
| Ustaize | Ustaizeko erreka bereoneratzea. | 97-06-16 | 6.071.229 |
| Zangoza | Ibaiertza bereoneratzea. Aragón ibaia | 97-07-04 | 12.828.375 |
| Garralda | Errekak ubidetzea | 97-07-04 | 67.603.670 |
| Errezu | Ibaiertza bereoneratzea. Ubagua ibaia | 97-03-29 | 3.206.832 |
| Auritz | Ibaiertzak bereoneratzea. Urrobi ibaia | 97-07-09 | 5.033.705 |
| Aranguren | Egokitzea. Sadar ibaia, Mutiloan | 97-04-30 | 7.259.610 |
| Oroz-Betelu | Hobetzea eta dragatzea. Irati ibaia | 97-04-20 | 485.200 |
| Otsagabia | Bereoneratzea. Zatoya eta Campa ibaiak | 97-04-20 | 5.106.631 |
| Mirafuentes | Ibaiertzak konpontzea. Odrón-Nabal ibaia | 97-06-25 | 2.534.935 |
| Cintruénigo | Ibaiertzak konpontzea. Alhama ibaia | 97-06-02 | 9.442.338 |
| Lerín | Ezpondak egokitu eta birlandartzea | 97-06-12 | 12.102.559 |
| Mañeru | Erreka bereoneratzea. Morea eta Yesera | 97-12-19 | 8.015.104 |
| Ultzama | Kalteak konpontzea. Ultzama ibaia | 97-02-19 | Zintzilik |
| Tafalla | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 97-08-08 | 22.625.860 |
| Erriberri | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 97-07-18 | 18.100.689 |
| Beire | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 97-07-18 | 10.130.150 |
| Pitillas | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 97-07-18 | 13.428.012 |

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako

ko bakoitzak?

Ondoko 8 eskaera hauek aurkeztu dira:

| HERRIA | JARDUKETA | DIRULAGUNTZAREN AURREK. |
|-----------|--|-------------------------|
| Tafalla | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 16.969.395 |
| Erriberri | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 16.290.620 |
| Beire | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 9.117.315 |
| Pitillas | Uholdeen kalteak konpontzea. Cidacos ibaia | 12.085.210 |
| Larrion | Uholdeei aurre hartzea. Urederra ibaia | 6.936.360 |
| Errezu | Ibaiertza konpontzea. Ubagua ibaia | 2.886.149 |
| Auritz | Ibaiertzak konpontzea. Urrobi ibaia | 4.530.345 |
| Aranguren | Ingurugiro-egokitzea. Sadar ibaia | 5.647.208 |

3. Zein egoeratan daude hasitako lanak? Jar-duketa horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko garatu al da?

Tafalla, Erriberri, Beire eta Pitillas herriei buruzko jarduketak 1997ko ekitaldian egin ziren.

1998ko ekitaldi honetan Larrion, Errezu, Auritz eta Aranguren herriei buruzkoak ari dira egiten.

4. Zein izan da Foru Agindu honetarako dirulaguntzetarako utzi den guztizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

1997an Foru Agindu honetako dirulaguntzeta-
ra zuzendutako gastu osoa 57.038.691 pezetakoa
izan da, 1998ko ekitaldirako 15.345.967 pezeta
konprometituz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erreklamenduaren 184. artikulua eta
ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta
Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Etxe langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentario jaunak etxe langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko aurreikusitako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentuko Taldeko Francisco Javier Vélez Medrano Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du etxe-langileen gizarte- eta lan-aurrerabidea sustatzeko

aurreikusitako jardueri buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Nafarroako Foru Eraentza, Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren II Tituluko zenbait kapitulutan adierazi diren Nafarroako Foru Komunitatearen ahalmenen eta eskuduntzen artean, ez daude Gizarte Segurantzako Sistemari eta Etxe Langileen Araubide Bereziari buruzkoak.

Beraz, esparru honetan ez dago lege- eta arautegi-ahalmenik eta, beraz, Nafarroako Gobernuak ezin du inongo neurririk hartu galderaren helburu diren gaiak araupetzen dituen araudiaren aldaketa eragiteko.

Iruñean, 1998ko apirilaren 15ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Iruñeko kongresu jauregi-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Iruñeko kongresu jauregi-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñeko Kongresu jauregi-entzutegiko eraikuntzaren eta kudeaketaren balizko pribatizazioari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri,

Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

1.- Jauregia izanen denari buruzko zer azterlan edo bideragarritasun plan egin ditu edo eskatu ditu Nafarroako Gobernuak?

Nafarroako Gobernuak, “Pamplona Convention Bureau” delakoari eskatu zion Iruñean egin beharreko kongresu jauregi-entzutegiak eduki behar zituen aukerei eta hornidurei buruzko azterketa egitea. Eskura dauden zerbitzuetan eta eskatutako beharretan oinarrituz, kongresu jauregi-entzutegirako eredu bat eta berari dagokion bidegarritasun-plana osatu dituzte. Ezaugarri hauek, ideia-lehiaketa egiteko eredu gisa balio izan dute.

2.- Iruñeko kongresu jauregiaren eraikuntza eta/edo kudeaketa pribatizatzeke asmoa al du Nafarroako Gobernuak?

Nafarroako kongresu jauregiaren eraikuntza edota kudeaketa, ideia-lehiaketaren emaitza eza-gutu ondoren erabakiko da. Proiektu irabazlea ikusirik eta bere ezaugarriak kontuan harturik, jauregiaren eraikuntzarako lehiaketa irekiko da. Kudeaketari dagokionez, bere garaian erabakiko da publikoa, pribatua edo mistoa izanen den, aukera guztiak egingarriak baitira.

3.- Etorkizunean zein izanen da Convention Bureau erakunde publikoaren zeregina kongresu jauregi-entzutegiari dagokionean?

“Pamplona Conventio Bureau SA” delako Sozietate Anonimoak ondoko paperak beteko ditu jauregiaren gain: jauregia, estatu- eta nazioartemailan sustatu, eta Iruñea eta Nafarroa sustatu, gure Komunitatean ahalik eta ekitaldi gehienak egin ahal izateko. Ez du zertan parte hartu haren esplotazioan.

Iruñean, 1998ko apirilaren 14an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 14ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamenduko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz:

Terminologia zehaztearren, jarraian ematen ditugun datuetan nerabetzat 12 eta 18 urte bitarteko pertsonak hartzen dira, eta “familia edo elkarteetan hartua egote” kontzeptu legala familiari eta etxebizitzari dagokienez erabiltzen da, erantzunean bereizi egiten badira ere. Zenbakizko datuetan 1998ko apirilaren 30eko egoeraren berri ematen da.

1go.- Zenbat nerabe daude elkarteetan hartuak?

– Gizarte-zailtasun egoeran dauden adin txiki-koak hartzeko baliabideak:

• Gure baliabideak:

Atarrabia egoitza 9

Lur Gorri egoitza 9

• Baliabide itunduak:

Mensajeros de la Paz etxe funtzionalak 14

Nuevo Futuro etxe funtzionalak 34

La Providencia egoitza 15

Itundu gabeko beste zentro batzuk (babesa) 7

• Gizarte-zailtasun egoeran dauden gazteei arreta egiteko baliabideak:

Lagun Etxea egoitza 18

Ilundaingo Haritz Berri landetxe-eskola 7

Sin Fronteras elkarte 11

2gn.- Zenbat nerabe daude familietan hartuak?

Familietan hartzeko programan 150 adin txiki-ko dauzkagu, eta horietatik 63 nerabeak dira.

3gn.- Zer dirulaguntza jasotzen dute nerabeak hartzen dituzten familiek?

Familietan hartutako 39 nerabek jasotzen dituzte laguntzak. Adin txikiko bakoitzeko hileko batezbesteko zenbatekoa 15.000 eta 35.000 bitartekoa da, kasuan kasuko eta banan-banako premien arabera.

4gn.- Zer segimendu egiten die Nafarroako Gobernuak nerabeei Gobernuaren babespetik eta egin diren elkarteetatik joaten direnean?

Adin txikikoa hartzeko gure zentroetako eta itunpeko zentroetako hezkuntza-proiektuetan,

elkartea utzi ondoren jarraipena egiten zaie bertan hartutakoiei.

Jarraipen-aldi hau, elkar-teotan burutzen den hezkuntza-tratamendua bezalaxe, norbanako bakoitzaren arabera da, eta adin txikiko bakoitzaren berariazko premietara egokitzen da.

Hartara, elkartea uzteko prestatu bitartean, gizarte-trebetasunetan, lan-bilaketan, harremanetan, eta bestelakoetan trebatzen dira.

Adin txikikoek Zentroa uzten dutenean, ondoko egoerak aurki ditzakegu:

1. Familiarekin itzultzea: familiara egokitzekeo programa bat burutzen da errekurtsotik.

Bizitoki berrian txertatu ostean, hizpide ditugun zentroetan lan egiten duten talde teknikoek adin txikikoaren jarraipena egiten dute, bizi den tokiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz, pixkanaka sare normalizatuan txertatzeko.

2. Familiarekin itzultzekeo aukerarik ez: kasu honetan, adin txikikoa zentroan dagoen bitartean autonomia pertsonal eta sozialerako baliabideak lantzen dira, etorkizunean, familiaren laguntzarik eza orekatu ahal izan dezan.

Etxebizitza-, lan- edo eskola-arloko oinarrizko premiak asetzeko, pisu banatuak, gazteentzako egoitzak, ikasteko bekak, enplegu sozial babestuko programetan sartzeko lehentasunak, oinarrizko errenta eta bestelako baliabideak eskaintzen dizkiegu.

Jarraipena murriztuz joaten da, aurreko puntuan azaldu dugun moduan, eta nerabea dagoen txertatze-programan behar bezala moldatzearen arabera, laguntza ematen jarraitu edo laguntza hori emateari utziko zaio.

Azpitarratu behar da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren filosofia eta praktika nerabearen erakundez kanpoko jarraipena egiteko: alegia, programotan aritu izandako adin txikikoaren oreka lortu nahi dugu, instituzioen inhibizioaren eta menpekotasuna sortzen duen gehiegizko babesaren artean, guztia ere, banan-banakako tratamendu normalizatzailea emanez.

3. Ez dago familiarekin itzultzekeo aukerarik eta adin txikikoak autonomia urria du, arazo psiko-fisiko baten eraginez: etxebizitza- edo lan-arloko laguntzak kudeatzen dira eta adin txikikoaren jarraipena bera hartua dagoen baliabide berritik egiten da.

5gn. Babespean egondakoetatik zenbat hel-tzen dira Unibertsitatera, Lanbide Heziketara eta lanbide-kategorietara?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hartutako adin txikikoek ikasketekiko desmotibazio handia izaten dute, familiaren baitan estimulazio-rik jaso ez izanaren ondorioz; ondorioz, eskola-porrot goiztiarra sortzen da, eta, horrekin batera, erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak egiteko itxaropenak sortzea eragotzi egiten da, halaber.

Bestalde, adin txikiko erabiltzaile askok Adimen Osasuneko sailetik tratatu beharreko arazo psikiatrikoak dituzte eta adin txikikoen arteko talde bat muga-mugan dago adimenari dagokionez edo adimen-urritasun zehaztua du.

Nerabeek ikasketak egiteko jarrera eta gaitasun egokiak izanez gero, instituzioen laguntza, zuzenekoa zein zeharkakoa (bekak), dagozkion zikloak amaitu arte luzatzen da, 18 urte bete ondoren ere.

Zentroetan hartutako 16 eta 18 urte bitarteko nerabeen arteko inork ez du unibertsitatean ikasten, eta bost LH arautuan dabilta.

Gainontzekoak LH egokitan izen emanda daude, edo bestela, INEMeko ikastaroetan, lanbide lantegietan eta abarretan dabilta.

Nerabe hauek jasotzen duten heziketa lanean hasi aurreko prestakuntza praktikoan oinarritzen da nagusiki.

Gainontzeko nerabeak (12-16 urte bitartekoak) DBHn edo hezkuntza berezian eskolatuta daude.

6gn. Ba al daki Nafarroako Gobernuak zein ikasketa edo lan egiten dituzten azken bost urte hauetan babespea utzi duten gazteek?

Laugarren galderan aipatutakoari jarraiki, elkartea utzi ostean egiten den jarraipenari esker gazte hauen bilakaeraren berri izaten dugu.

7gn. Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak aipatutako nerabeen gizarte-integrazioa?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak zaindutako adin txikikoek alor afektibo eta emozional-letan gabeziak dituzten arren, eta horrek gizarte-ratze egokia oztopatzen badu ere, gure balorazioa positiboa da.

Iraganean instituzioekiko sortzen zen menpekotasuna murriztu egin da.

Egoitza hauetan hartutakoekin burututako banan-banako tratamenduei eta helburu normalizatzaileak finkatu izanari esker, gizarteratze-maila handia lortu dute haur horiek.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako Programazio Atalak zentroetan bizi izan diren –eta azken hamarkadan zentroak utzi dituzten– adin txikikoak ebaluatzeko azterlan bat egiteko asmoa du, egun bizi duten egoeran zenbaterainoko gizarteratzea lortu duten jakiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko apirilaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espeditari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espeditari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Aluminios Alzania enpresari ezarritako zehapen-espeditarearen egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Espeditarearen izapidetze egoera Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

Aluminios Alzania enpresaren aurkako zehapen-espeditaria, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 11ko 223/98 Foru Aginduaren bidez hasi zen.

Gaur egun alegazio fasean dagoen Espeditariak, honako hauek jaso ditu kargu-orrietan, salatuak gertakari gisa: jarduera-lizentzian ezarritako baldintza behin eta berriz ez betetzea (prozesuan sortutako hondakin arriskutsuak bai-

mendutako enpresaraino eramane eta labe birakariak atmosferara egindako emisioen neurketak egin), eta Departamentuak enpresari ezarri dizkion neurri zuzentzaileak ez betetzea, halaxe ateratzen baita egindako eskakizunei jaramonik ez egitetik.

Era berean, hondakin arriskutsuen kudeatzaile gisa ezarritako baldintzak ez ditu bete, besteak beste fidantza- eta aseguru-prestazioen inguruan; eta hondakinak, fabrikako barrualdean eta kanpoko patioan, baimendutakoa baino denbora gehiagoz gorde direlako, horrek ingurugiroan eragin ditzakeen arriskuekin.

Zigor-proposamena ondoko hau izango litzateke: 2.500.000 pezetako isuna, eta gaur egun gorderik dauden hondakinak kudeatzeko obligazioa eratzea, hiru hilabeteko epean, ezarritako baldintzen arabera, zenbait prebentzio-neurri ezarritak.

Obligazio hauek ez baditu betetzen, jarduera aldi baterako etetea aurreikusi da.

2. Zer egin du Departamentuak ingurugiroaren ikuspegitik, eta enpresaren egoera kontuan izanik, oso arriskutsua den jarduera hori geldiarazteko?

Aurreko puntuan adierazi bezala, enpresak ez baditu ezarritako prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartzen zehapen-espeditariak berak jarduerak gelditzea aurreikusi du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako Gobernuak ugatzari buruzko bileran parte hartu ez izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak ugatzari buruzko bileran parte hartu ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitarara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Andorran ugatzari buruz egin duten XI. koordinazio-bilkurari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zergatik ez zuen Nafarroako Gobernuak Ugatzari buruzko koordinazio-bilkura horretan parte hartu?

Bilkurara fisikoki ez bertaratzearen arrazoia, Ugatza Leheneratzeko Planean Nafarroak hitzar-

tutako jarraipeneko jardueri buruzko dokumentazio eta informazio guztia igorri bazen ere, bertaratu beharreko teknikoak berak hartutako erabakiari zor zaio; egin behar zituen lanen lehentasuna zela-eta ez zuen bertaratzerik izan, eta Zerbitzuak azaldu zituen arrazoiak balekotzat eman zituen.

Interesatuak azalpen horiek berak argitarara eman zituen “Diario de Noticias” egunkariari igorritakoa gutunaren bidez, 1998ko otsailaren 26an argitaratua. Adierazitako egunkarian argitaratutakoaren kopia eranstean dugu.

2.- Parte hartu ez izate horrek orain arte koordinazio-bilkura horretan parte hartzean gauzatzen zen jokabidean aldaketarik izan dela esan nahi al du?

Nafarroako Gobernuak ez du inoiz ere planteatu Ugatza Leheneratzeko Plana uztea eta Life Proiektuan ez jarraitzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 14an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta udal Musika eskolen finantziarioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak musika irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta udal musika eskolen finantziarioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du musika-irakaskuntzaren beharren gaineko ikerlana egiteari eta Udal Musika Eskolen finantziarioari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren asmoa, Nafarroako Parlamentuaren eskaerei ahalik eta azkarren erantzutea da, gaien zailtasunak eta kudeaketa arruntaren premiek uzten duten neurrian. Dena den, datozen asteetan bukatzeko asmoa dugu galderan aipatutako azterketa.

2. "Pablo Sarasate" Kontserbatorioarekin lotutako jarduerak Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren menpe daude. Kontserbatorioaren gaur egungo instalazioen eta izan daitezkeen beste hainbat egoitzen xedeak aldeztatik zehaztu behar dira, bai eta, hala badagokio, instalazio berrien eraikuntzetarako egon daitezkeen orubeak ere. Zentzu honetan, bi administrazioen arteko elkarrizketak daude, eta arrazoizko epean, erabakietara heltzeko asmoa dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroa minusbaliatuen lan-integrazioarako egitarauen barnean sartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Nafarroa minusbaliatuen lan-integrazioarako egitarauen barnean sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo Foru

Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroa minusbaliatuen lan-integrazioarako 1997ko egitarauen barnean ez egotearen arrazoiei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Minusbaliatuen talde sozialaren lan-integrazio-ko egitarauak Nafarroako Foru Komunitateari transferitu zaizkio, enplegu-sorkuntzarako laguntza-programen gaian Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera zerbitzuak eskualdatzeko apirilaren 11ko 930/1986 Errege Dekretuaren bidez transferitu ere.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako funtzio eta zerbitzu hauek adierazitako Errege Dekretuko 2. artikuluko b) idaztiak ondo-koak bezala identifikatzen ditu, besteak beste:

“...enplegu autonomoaren sustapena eta minusbaliatuaren lan-integrazioa...”

Transferentzia zela-eta, Estatuko Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitateak transferitutako zerbitzuen kostua baloratu zuten, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren kostua gutxitzeko Hitzarmen Ekonomikoan.

Hori dela-eta, Lan Ministerioak autonomia erki-degoen artean urtero talde honi zuzendutako fondoak banatzera ekiten dionean, Nafarroako Foru Komunitatea ez da barne hartzen, adierazitako Hitzarmen Ekonomikoaren bidez finantzatuta baititu.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 58. artikuluko b) idazatiaren arabera, Nafarroari dagokio lan arloko legedia betearaztea. Bada, aipatu legedi hori bete-arazteko, eta, zehazkiago, 1986ko otsailaren 21eko Ministro Agindua jasotzen dituen enplegu-sorkuntzari laguntzeko programak garatzeko –hain zuzen ere, V. programakoak, minusbaliatuak enplegu-zentro berezietan eta lan autonomotan laneratzeari buruzkoak–, 885 milioi pezeta izendatu dira guztira Nafarroako 1997ko Aurrekontu Oro-

korretan, hurrengo aurrekontu-kontusailetan: Enplegu zentro bereziendako transferentziak, ohiko eragiketetarako (710 milioi pezeta), eta enplegu zentro berezietarako eta minusbaliatuentzako transferentziak, inbertsioetarako (175 milioi pezeta); biak ere, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Enplegu eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzukoak izanik, aipatu gizarte-taldearen laneratzea dute xede, bistan da.

Aipatu finantzaketaz gain, neurri osagarriak ere aipa daitezke; hain zuzen, 53 milioi pezeta hitzartu dira 1997an Horizon deritzon ekinbide komunitarioa betetz, minusbaliatuentzako enplegu-programa bitan –“Optas”, Tasubinsak zuzendua, eta “Mosaic”, Bidean-ek kudeatua–, eta Europako Gizarte Fondoak %50eko finantzaketa jarri du. Minusbaliatuentzako lanbide-heziketari bagagoz-kio, bost milioi pezeta baino gehiago erabili ziren urte berean, hirugarren helburuko 3.1 ardatzaren baitan, Europako Gizarte Fondoaren kofinantza-ketarekin.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramon Bultó Llevat

Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko Nafarroa hautatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko Nafarroa hautatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 14ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko

Nafarroa hautatzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1.- Egia al da informazio hori?

Ez. 1998an komunikabideetan azaldutako informazioak, COLPISAko iturriak aipatzen zituen, Nafarroako Gobernuz Kanpoko hiru Erakunde eta Nafarroako Gobernua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamenduaren bidez, antolatzen ari ziren “Kolonbiako Bakearen aldeko Nazioarteko Topaketa” itxuragabetzen zuen; izan ere, topaketa hau ez baitzen ELN gerrilari-taldearen eta Kolonbiako Gobernuaren arteko inolako “negoizazioa”, mota askotako taldeak biltzen zituzten lan-saio batzuk baizik (Kolonbiako bake-prozesuan zerikusirik duten gizarteko alderdi guztiak gonbidatuta zeuden: Kolonbiako Estatuko erakundeak, erakunde zibilak, erakunde erlijiosoak eta talde matxinatuak), ondoko helburuak lortzeko:

a) "Kolonbiako gatazka konpontzeko bideetan oinarrituz, bakea lortzearren lanean diharduten pertsona eta erakundeen artean (eta nazioarteko behatzaileak bertan egonik) gogoeta egitea"

b) "Kolonbiak bizi duen barne-gatazkarako konponbidearen inguruan azterketa eta gogoeta egitea, sentsibilizazioa sustatzea eta babesa emateko espazio bat sortzea nazioartean, kolonbiarrek beraiek mugarik gabeko azterketa zabal bat egiteko oinarriak finkatzeko, eta hala, ondorio batzuetara iritsi eta ondorio hauen garapena zehaztu ahal izateko ekarpen bat egiteko".

2.- Nafarroako Gobernuak zein Departamentu-ri esleitu zaio lan hori?

Negoziaketaren inguruko bilereiz dagokienez, ez zaio inongo Departamentu-ri esleitu, ez baita halakorik burutu.

Kolonbiako Bakearen aldeko Nazioarteko Topaketari dagokionez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak antolatu eta koordinatu du ekitaldi hori, gobernuak kanpoko beste hiru erakunderekin elkarlanean.

3.- Zein aurrekontu sail erabiliko da hori ordaintzeko?

Negoziaketaren inguruko bilereiz dagokienez, inolako aurrekontu-sailik ez.

"Kolonbiako Bakearen aldeko Nazioarteko Topaketari" dagokionez, 90010-4810-3130 "Gara-penerako nazioarteko lankidetzak" kontusaila (31610-9).

4.- Nork eskatu dio Nafarroako Gobernuari negoziazio horietan bitartekari lanak egitea?

Inork ez, Nafarroako Gobernuak ez baitu inoiz leporatu zaion bitartekari-lanik egin.

5.- Zein kontaktu izan dira orain arte ELN gerrilari taldearen eta Kolonbiako Gobernuaren artean?

Batere ez.

6.- Zein izan da jarduketaren egutegia?

Usteko bitartekari-lanei dagokienez, ez dago inolako egutegirik, agerikoa denez.

7.- Zein dira etorkizunerako ELN gerrilari talde-arekin aurreikusitako diren kontaktuak?

Ez da kontakturik aurreikusten.

8.- Uste al du Nafarroako Gobernuak terroristen eta Kolonbiako Gobernuaren arteko negoziazioa formularik egokiena dela herri latinoamerikar horrek bizi duen gatazka armatua gainditzeko?

Kolonbiak duela 30 urtetik gora bizi duen barne-gatazka biolentzian eragina duten funtsezko alderdi ugariak ulertu ahal izateko ahalegina ezinbestekoa da; izan ere, arazo honetarako konponbidea gatazka horretan parte hartzen duten alderdi-multzo handi horretan eragiten duten prozesuek ekarriko baitute. Eta zeregin hori Kolonbiako herri burujabeari beste inori ez dago-kio.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Jarduketaren zein fasetan daude Leitzarango eta Sakanako autobietako obrek kalteturiko ibaiertz eta ubideak bertako espezieekin leheneratzeko lanak? Garatzen ari al dira aipatu obretako Ingurugiro Eragineko Aitorpenetan ezarri ziren neurriak? Jarduketaren zein fasetan daude ibaiaren eta haren inguruan (zubiak eta iraganbideak) erakitako egiturek sorturiko kalteak zuzentzeko lanak? Kasu bakoitzerako ezarri zen Begiratze eta Kontrol Plana aplikatzen sorturiko zein jarduketa egin dira? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

Arakil ibai-arroko Salmonidoen Arrantza Antolatzeke Plana, 1996ko irailaren 2ko 309 Foru Dekretuaren bidez onartu zen. Indarraldi mugagabea duen Plan horrek, indarrean sartu eta zortzi urtetara berrikuspina egin beharra agintzen du. Une honetan, Plana bere garapenaren hasieran aurkitzen da oraindik.

Lehenengo galderari erantzunez, eta Leitzarango eta Sakanako autobiek kaltetutako ertzak eta ubideak berreskuratzeari arduratutako Herrilari, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren

Zainketa eta Kudeaketa Teknologikoaren Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, adieraz diezazuket, obra bakoitzeko Ingurugiro Eragineko Aitorpenean jasotako neurriak aurreikusitakoaren arabera ari direla betetzen.

Zubien eta iraganbideen zuzenketa egin da. Gainera, Herrilari Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa eta Kudeaketa Teknologikoaren Zerbitzuko errepideetako “Atsedenguneen eta Ingurugiroaren Kontserbazioa” delakoari buruzko programa dago. Eragineko Aitorpenean jasotako zainketa- eta kontrol-jarduerak egin dira. Era berean, Leitzarango Autobiaren kasuan, Nafarroako Unibertsitateko Ekologia Departamentuak kontrol biologikoak egin ditu 1996 eta 1997an, Herrilari, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren aginduz.

Ingurugiro Eragineko Aitorpenean agertutako begiratze- eta kontrol-plana, obra bukatu eta hiru urtez egonen da indarrean; epe hau Leitzarango Autobiarako eta Sakanakoaren zati baterako bete da. Hala ere, Herrilari, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren iritziz, ingurugiroaren begiratze orokorrak ez du preskribitzen eta urtero bi obrak “Nafarroako errepideetako Atsedenguneen eta Ingurugiroaren Kontserbazioa” delako planean sartuko dira.

Arakil, Altzania eta Udarbe ibaietan habitata berreskuratzeko aurreikusitako jardueren garapenari buruz egindako gainerako galderei dagokienez, Altsasuko udalerrian, Arakil ibaian dagoen Altsasuko Errotan eskala egiteko neurriak ezarri direla adierazten dut. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren laguntza ekonomikoarekin amaitu zen obra.

Aurten, gainerako ibai-hesietako titularrekin harremanak ezarriko dituzte, Planean jasotako neurrien bideratzea hasteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Arte-monumentuak zaharberritzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak arte-monumentuak zaharberritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Luis Gerardo Lopez Eslava Foru Parlamentario jaunak galdera egin du arte-monumentuak zaharberritzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Zangoza. Vallesantoro jauregia. 62 milioi.
2. Aiegi. Iratxeko monasterioa. 100 milioi.
3. Noain. Akueduktua. 80 milioi.
4. Iruñea. Kontuen Ganbara. 3 milioi.
5. Iruña. Errege jauregia. 500 milioi.
6. Donamaria. Jauregia dorrea. 45 milioi.
7. Orreaga. Kolegiata. 90 milioi.

8. Erriberri. Gaztelua. 40 milioi.
9. Abartzuza. Irantzuko monasterioa. 25 milioi.
10. Esa. Leireko monasterioa. 25 Milioi.
11. Uxue. Santa Maria eliza. 25 milioi.
12. Martzilla. Gaztelua. 30 milioi.
13. Lizarra. Santa Maria Jus del Castillo eliza. 90 milioi.
14. Artaxona. San Saturnino eliza. 90 milioi.
15. Cabanillas. Eliza Sanjuanista. 60 milioi.
16. Erriberri. San Pedro. 30 milioi.
17. Tuter. Katedrala. 100 milioi.
18. Iruña. Katedrala. 25 milioi.

Proiektu eta diru-kopuru hauek behar adinako aurrekontu-baliabideak erabilgarri izatearen menpe daude, jakina.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesus Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Museoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Nafarroako Museoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du Nafarroako Museoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

(Nafarroako Museoa Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Atalari dagokio, eta zaila gertatzen da Museoari soilik dagozkion funtzioak eta aurrekontuak eta Atal osoari dagozkionak bereiztea. Horrenbestez, erantzuna Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Atalari buruzko informazioa emanez planteatzen da.

- 1997 eta 1998 urteetako aurrekontuak.

1997ko aurrekontuak: 369.204.000 pezeta

1998ko aurrekontuak: 739.379.000 pezeta (Oteiza Fundaziorako 401.000.000 pezeta barne hartuta)

- Enplegatu-kopurua kategorია bakoitzean.

Goi-mailako teknikari 1, zuzendaria eta atalburua

4 goi-mailako teknikari (Nafarroako Museoa)

Goi-mailako teknikari 1 (Nafarroako Museo Etnologikoa)

Goi-mailako teknikari 1 (Jorge Oteiza Fundazioa)

3 goi-mailako teknikari zerbitzu-jardunerako

Zaharberritzaile 1

Mantenimenduko arduradun 1

2 ofizial administrari

2 administrari laguntzaile

Indusketa-lanetako kapataz 1

2 mandatari

17 zaintzaile

2 monumentu-zaindari (Iratxe eta Eunate)

- Segurtasun-zerbitzuen kostuak.

1997: 30.000.000 pezeta

1998: 34.000.000 pezeta

- Bisitari-kopurua 1997an eta 1998rako aurreikuspenak.

1997: 36.742 bisitari

1998: Antzeko kopurua aurreikusten da.

- 1997an eginiko jarduerak, horien kostuak eta horietara joan zen pertsona-kopurua adieraziz.

| ERAKUSKETAK | KOSTUAK | BERTARATUAK |
|---|-----------|-------------|
| Pintura Flamenko Barrokoa | 6.111.895 | 6.549 |
| Oiza. Arkitektoa | 3.405.879 | 4.970 |
| Pedro Manterola | 2.786.558 | 3.753 |
| Sormenerako laguntzak | 2.918.376 | 1.488 |
| Joaquín Torres García | 1.253.963 | 3.483 |
| Martín-Caro. Nafarroako Museoko Fondoak. Madril | 8.014.014 | — |
| Historia zure esku: | | |
| Aro Modernoa (ONCE) | 88.355 | 181 |

| ZINEMA | KOSTUAK BERTARATUAK | |
|--------|---------------------|--|
|--------|---------------------|--|

| | | |
|----------------------------------|-----------|-------|
| 6 zinema-ziklo Nafarroako Museoa | 4.605.714 | 2.514 |
|----------------------------------|-----------|-------|

| NAFARROAKO ESKULTURA SARIA | KOSTUAK BERTARATUAK | |
|----------------------------|---------------------|--|
|----------------------------|---------------------|--|

| | | |
|--------------------------|-----------|-----|
| Lehiaketa eta erakusketa | 6.998.921 | 746 |
|--------------------------|-----------|-----|

| MUSEOKO KAPERA HANDITZEA | KOSTUAK | |
|--------------------------|---------|--|
|--------------------------|---------|--|

| | | |
|------------------------------------|-----------|--|
| Muntatzea, zabaltzea, argitaratzea | 5.404.971 | |
|------------------------------------|-----------|--|

- 1998ko urtarrilean eta otsailean buruturiko jarduerak, horien kostuak eta horietara joan zen pertsona-kopurua adieraziz.

| 1998ko ERAKUSKETAK | KOSTUAK BERTARATUAK | |
|--------------------|---------------------|--|
|--------------------|---------------------|--|

| | | |
|------------------------|-----------|-------|
| Toni Catany. Argazkiak | 1.366.360 | 3.184 |
|------------------------|-----------|-------|

| | | |
|-------------------------|-----------|-------|
| Martín-Caro. Marrazkiak | 1.020.115 | 3.026 |
|-------------------------|-----------|-------|

- 1998 urtearen gainontzekorako aurreikusita-ko jarduerak, horien kostuak adieraziz.

| AURREIKUSITAKO ERAKUSKETAK | KOSTUAK | |
|----------------------------|---------|--|
|----------------------------|---------|--|

| | | |
|-----------|-----------|--|
| Pirinioak | 8.750.000 | |
|-----------|-----------|--|

Vicente Berdusán

Sormenerako laguntzak

Denariotik eurora

Nafarroako pintura saria

Historia zure esku:

Aro garaikidea (ONCE)

| ZINEMA | KOSTUAK | |
|--------|---------|--|
|--------|---------|--|

| | | |
|----------------------------------|-----------|--|
| 7 zinema-ziklo Nafarroako Museoa | 5.495.000 | |
|----------------------------------|-----------|--|

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesus Javier Marcotegui Ros

Zaharberritze lanak egiteko laguntzak edo dirulaguntzak emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak zaharberritze lanak egiteko laguntzak edo dirulaguntzak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du zaharberritze-lanak egiteko laguntza edo dirulaguntzak emateari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontuen Ganbararen txostenak dirulaguntzak behar bezala eman direla erabaki du; are gehiago, Kontuen Ganbararen ustez denbora-bilakaera positiboa izan da espedienteen izapidetzeari dagokionez.

Iruñeko Artzapezpikutza ez dago galderan adierazitako Batzordearen barruan.

2.- Txostenarekiko alegazioetan adierazten eta praktikan hala egiten denez, Hezkuntza Departamentuko unitateek Kontuen Ganbarak bere irizpeneetan adierazten dituen oharak bere horretan errespetatzen dituzte eta burutzen dituzte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesus Javier Marcotegui Ros

Ibaietako ekosistemak kontserbatzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat Parlamentuari igortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ibaietako ekosistemak kontserbatzeko eta kudeatzeko Foru Lege proiektu bat Parlamentuari igortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Jose Javier Sanchez Turillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ibaietako Ekosistemak Kontserba-

tzeko eta Kudeatzeko Foru Lege proiektu bat Nafarroako Parlamentuari igortzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer-nolako lan egin du, egiten ari da edo egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak duela urtebete Nafarroako Parlamentuak eskatu zion Ibaietako Ekosistemak Kontserbatzeko eta Kudeatzeko Foru Legea idazteko?

Bada denbora dezente Nafarroako Gobernuak eskutan duela eskatutako Ibaietako Ekosistemak Kontserbatzeko eta Kudeatzeko Foru Legeko proiekturako oinarria den lan-zirriborroa. Halere, eta gai honetan dauden eskumen desberdinak (Estatuarenak eta Foru Komunitatearenak) direla eta ez direla, eta Estatu mailan ibaietako ekosistemetan eragina duten zenbait alderditan datorren aldaketa dela-eta, azken ukituak falta zaizkio oraindik zirriborro horri.

2.- Aipaturiko Lege proiektua Biltzar honek eztabaidatu, eta hala bada, onesteko noizko igortzea aurreikusten du?

Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu hau igortzea eskatzen zuen mozioa eztabaidatzean, ezagutzen zituen Lege honi ekiteko zailtasunak eta horregatik ezabatu zuen hasiera batean Legea idazteko ezarri zen epea.

Izan ere, badira zenbait baldintzapen alde aurretik argitu beharrekoak adierazitako Foru Lege proiektuak oinarriak behar adina sendoak izan ditzan. Ildo honetan, ondokoa gogorarazten dugu:

a) Oraindik ez da ebatzi Estatuko Administrazio Orokorrak Basa Fauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeko Foru Legearen aurka jarritako errekurtsioa; Lege horretatik zetorren Gobernuari Nafarroako Florari eta Ibaietako Ekosistemei buruzko Habitat Naturalen Foru Legeko proiektu bat Parlamentura igortzeko agindua, hain zuzen ere.

b) Arroko Plan Hidrologikoa oraindik ez da onetsi, eta bere onespina ezinbestekoa da eskatutako Foru Legeko proiektua sendotasunez oinarritzeko.

c) Bestalde, interes eta lehentasunezko habitatak eta ibaietako ekosistemei dagozkien taxon jakinak ukitzen dituen EEEko 43/92 Arteztarauen ezarpenari azalpen batzuk falta zaizkio zenbait alderdi funtsezkeri dagokionez, babesgune berezien azken hautaketa, erabilera-mugak, eta hauengatiko finantzaketa konpentsatzailea, esate baterako.

Hori guztia dela-eta, ez dirudi egokia denik, segurtasun juridiko eta administratiboko arazoak

direla medio, alderdi horiek argitu arte adierazitako proiektua aurkeztea.

3.- Arretagai dugun Osoko Bilkuran "Unión del Pueblo Navarro"ko Bozeraileak aipatu zuen lan dokumentua, ur-ekosistemen eta horien populazioen bioaniztasuna mantendu eta garatzea, urbaliabideen erabilera ordenatua, horiez modu jasangarrian baliatzea eta ibai-arloan eskumena duten administrazioekiko koordinazioa bezalako puntuak jasotzen dituen Foru Dekretu baten zirriborroa garatzen duena, zer fasetan aurkitzen da? Noiz bukatzea aurreikusten da?

Berriazko esparru arautzaile horren faltan, ur-ekosistemen bioaniztasuna garatu eta mantentzea eta horiez modu jasangarrian baliatzea aniztasun biologikoa kontserbatu eta modu jasangarrian erabiltzeko Nafarroako estrategiaren barruan kokatu da oro har, eta jaun horrek dakien bezala, estrategia hori lan bateratuan lantzen ari dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak martxoan aurkeztutako lan-dokumentu batean oinarrituta.

Bestalde, lehen dokumentu bat landu du, 1997ko abenduan Arrantzako Batzorde Aholkuemaileari igorritakoa, Nafarroako ur geldo eta urtegietan arrantza antolatzeke, ibaietako inguruetan jarraitu beharreko norabideak eta irizpideak finkatzen dituena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Lotzako putzua babesturiko naturgune gisa deklaratzeko espedientea has zezan Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen erabakia betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Lotzako putzua babesturiko naturgune gisa deklaratzeko espedientea has zezan Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen erabakia betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Jose Javier Sanchez Turillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lotzako Putzua Babesturiko Naturgune gisa deklaratzeko espedientea has zezan Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen Erabakia betetzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Parlamentu honetako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen Erabakia betetzeko Nafarroako Gobernuak hasitako izapideak zer jarduketa-fasetan aurkitzen dira?

Nafarroako Gobernuak Lotzako Putzuaren Erabilerean Antolamendu Integralerako Hitzarmen proposamena igorri dio Lotzako Kontzejuari, aztertu eta ondoren onar dezan.

2.- Lotzako Putzuan babestu beharreko ingurunearen Erabilera eta Kudeaketa Plana idatzi al da? Zer hedadura du ingurune horrek? Zer jarduketa aurreikusten dira existitzen diren hari elektrikoaren eragina kendu edo murrizteko? Erabakian

aipatzen den Hitzarmena, Lotzako Kontzejuarekin, idatzi, onetsi eta sinatu al da?

Adierazitako Hitzarmenaren bigarren estipulazioan ondokoa ezartzen da: “Lotzako Putzua babesteko erregimena urtarrilaren 13ko 4/1997 Foru Dekretutik eratorritakoa da, Nafarroako Eskualde Hezeen Inbentarioa sortzen duena...” Erabilera eta Kudeaketa Plana idazteko derrigorrezkoa da Babesturiko Naturgune deklaratzea, eta deklarazio hori ez da gauzatuko Lotzako Kontzejuak Hitzarmena behin-betiko onartzen ez duen arte.

Planak putzuko flora eta faunako espezie nagusien erabilera eta kudeaketa barne hartu behar du.

Electra Valdizarbe enpresarekin egiten den hitzarmen berrian existitzen den hari elektrikoaren inguruan beharrezkotzat hartzen diren jarduketak barne hartzea aurreikusita dago, txori zezenaren eta Bonelli arranoaren Life programaren kargura.

Aurreko galderan adierazi denez, Departamentu honek jadanik idatzi du Putzuaren Erabilerean Antolamendu Integralerako Hitzarmena eta Kontzejuaren erantzunaren zain gaude.

3.- Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen Erabakian aipaturiko jarduketa bakoitza noizko bukatzea aurreikusten da? Eta espediente osoa bukatzea?

Hitzarmena eta putzuaren katalogazioa aurten indarrean egotea espero da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 21ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Esako Udaleko zenbait erabakiren aurka egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Esako Udaleko zenbait erabakiren aurka egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 14ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Toki Administrazio Kontseilariaren maiatzaren 5eko 27/1997 Foru Aginduari buruz, 1996ko uztailaren 17an eta abuztuaren 20an Esako Udalak hartutako erabakiak aurkatzeko agintzen duena (lehenbizikoa administrazio-lanak egiteko pertsona bat kontratatzeari buruzkoa da eta bigarrena Udaleko Idazkari izateko gaitzeari buruzkoa). Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Agindua betetzeko?

27/1997 Foru Agindua administrazioarekiko errekurtsioa aurkezte hutsaren bidez betearazten da, eta hori 1997ko maiatzaren 15ean egin zen.

2.- Zein egoeratan dago administrazioarekiko auzian Esako Udaleko aipatu erabakien aurkatzeari?

Aurkeztutako errekurtsioa izapideak egiteko fasean dago Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusian dagokion Sailean.

3.- Denborari dagokionez, zein aurreikuspen egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Agindua behar bezala betearazteko?

Aipatu Foru Aginduak errekurtsioa aurkezten den unean sortzen ditu dagokion ondorioak.

Nolanahi ere, denborari dagokionez auzitegi-ebazpenetarako zein aurreikuspen egin diren jakitea bada galdera honen helburua, Nafarroako Gobernuaren jarduketa-eremutik kanpo dago gorabehera hori, egindako galderei erantzun ahal izateko epaia Justizia Administrazioari baitagokio, eta beraz, erakunde honek ezin du inolako eperik adierazi.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 28an

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 14ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Bozeramaileak galdera egin du eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontuaren azken eztabaidan zenbait emendakin onetsi zen artikuluetan aldaketak egiteko, eta horien xedea zen gaurkotze eskubidea duten pentsioei muga jartzea, eta horrela pentsioei gehikuntzak gehitu, eta ezin izanen dute gaintitu Gizarte Segurantzaren pentsioetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritako gehieneko muga.

Hiru hilabete pasa dira Aurrekontuen Legea onetsi zenetik, eta jakin nahi da zer eragin izaten ari den xedapen hau Nafarroako administrazio publikoen klase pasiboetan. Hori dela eta, galdera honen bidez, datuak nahi dira, gaur egun, zenbatekoa jada 1998ko Aurrekontuak ezarritakora mugatua izan duten pentsio kopuruari buruz.

Halaber, jakin nahi da nola interpretatu dituen Nafarroako Gobernuak 1998rako Aurrekontuen Legean emendakin bidez onetsi ziren xedapenak, hain zuzen, pentsioei buruzkoak eta baita pentsio horiek Administrazioan ari diren langileengan dituzten eraginak aurreikusten zituztenak.

Abenduaren 30ean 21/1997 Foru Legea, Nafarroako 1998rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, onartu ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat bidali zion Kontseilari honi, aipatu Foru Lege horretako lehen eta bigarren xedapen gehigarriak zirela eta, agindu bien zentzuari eta irismenari buruzko irizpide bat emanez. Hizpide dugun auziaren garrantzi handia dela eta,

aipatu Zuzendaritza Nagusiak txostenaren bukaeran esaten zuen txosten hori Funtzio Publikoaz kanpoko abokatuek egindako irizpen juridiko batekin alderatzea komeni zela.

Aurrekoaren ondorioz, azpian sinatzen duenak Nafarroako Gobernuak Aholkularitza Juridikoaren esku utzi zuen aipatu txostena egiteko lana.

Nafarroako Gobernuak, aurtengo urtarrilaren 19an egindako bilkuran, hizpide dugun irizpenaren berri jaso zuen, bertan azaltzen diren ondorioekin bat egin eta, abenduaren 30eko 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/1997 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriarekiko Aholkularitza Juridikoaren txostenean azaltzen diren ondorioekin bat etorritik jarduteko agindu zion Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari.

Aholkularitza Juridikoa ondoko ondorioetara heldu zen, 1998ko urtarrilaren 13ko data duen txosten luze eta dokumentatu bat aztertu ondoren:

“1go. 21/1997 Foru Legeko 10. artikuluaekin bat etorritik, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboan eguneratzeko eskubidea duten pentsio guztiak ehuneko 2,1 handituko dira, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eta gehieneko mugarik gabe.

2. 1997/21 Foru Legeak Nafarroako Administrazio Publikoko funtzionarioen eskubide pasiboari buruz egun indarrean dagoen erregimenari eusten dio, dagozkion eguneraketak eta lan-istripuarengatik edo laneko gaixotasunarengatik 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren pentsioen salbuespena eginez. Hala, Nafarroako klase pasiboan pentsioak 13/1983 Foru Legea indarrean sartzan denean indarrean dauden xedapenen arabera arautuko dira, ondoren ezarritako arauak eragindako aldaketak aintzakotzat hartuz. Horrengatik, Foru Xedapen horietan ezarritakora egokituiko dira pentsio horiek aurrerantzean, 21/1997 Foru Legeak gehieneko mugarik ezartzen ez diela.

3. Eguneratzeko eskubidea duten eta dagoneko existitzen diren pentsioei dagokienez, 21/1997 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako eguneratzen neurriak eta ordainketa bakarra aplikatuko zaie, baldin eta pentsioari gehikuntza erantsi ondoren geratzen den zenbatekoa Estatuko Aurrekontu

Orokorretan Gizarte Segurantzako pentsioetarako finkatutako gehieneko muga gainditzen ez badu”.

Lehen xedapen gehigarria, eta xedapen hone-tako azken tartea bereziki, salbuespenezko eta aldi baterako araua da, eta arau hau aplikatuko da, baldin eta Nafarroako 1997ko KPI %2,6 baino handiagoa bada. 85. zuzenketaren bidez 3. atalari gehitzen zaion azken tarte hori, esan bezala, murriztailea edo mugatzailea da, eta beraz, ezin da xedapen gehigarri horren eremu zehatzetik gaindi aplikatu, hau da, ezin da beste arau batzuetan aplikatu, Foru Lege horretako 10. eta 11. artikuluetan adibidez, areago, hauei buruzko zenbait zuzenketa atzera bota zirela gogoan izanik.

Bukatzeko, gogoratu beharra dago, bien bitartean jakin zela Nafarroak 1997an izandako KPIK ez zuela Lehen Xedapen Gehigarrian finkatutako portzentaia gainditu.

Horrenbestez, 1998rako Aurrekontuei buruzko Foru Legea indarrean sartu aurreko edo osteko pentsio bakar bat ere ez da murriztu.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 28an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 14ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Elortz ibaira kontrolatu gabe egindako isurketei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1go. Ea Ingurugiro Departamentuak neurriren bat hartu ote duen hori konpontzeko.

Joan den martxoaren 25ean Elortz ibaira ikustaldia egin zen hondakin-uren isurketari buruzko salaketa baten berri izan ondoren, ibaiaren egoera aztertzeko.

Elortz ibaia aztertu egin zen, N-121 errepidearen ibilbide zaharrean zubia zegoen parean, Posusaren instalazioetatik hurbil, Noain eta Beriain hiriguneen artean.

Guztira 550 metro inguru aztertu ziren, Errekaldea erretenak Elortz ibaiarekin bat egiten duen lekuaren (zubitik 250 metro inguru gora aldera) eta Posusako trenbidearen adar zaharrak Elortz ibaiaren gainean zuen zubiaren artean (zubitik 300 metro inguru behe aldera).

Jarraian azterketa honetan bildutako datu eta alderdi aipagarriak adierazten dira:

- POSUSA enpresak Zoliako urtegitik ur gazduna dakarten bi hodi bizki erabiltzen ditu ingurune honetan, eta beste bi hodi bizki ur gazdun hori injekzio-zundaketetara garraiatzeko. Lau hodi hauek zubipean itsatsita zeharkatzen dute Elortz ibaia, eta ikuskapena egin zen unean, zama-lanean ari bazen ere, ez zen ihesgunerik antzeman.

- Elortz ibaiaren ezker ibarrean, zubitik behe-runtz 40 metro inguru, kolektore batek isurtzen du eta kolektore honek Beriain eta inguruko hondakin-urak isurtzen omen zituen duela zenbait urte, Iruñerriko Ur Mankomunitatearen eskualdeko kolektorea lanean hasi aurretik. Gaur egun euri-urak isurtzeko erabiltzen da. Azterketa egin zen egunean, kolektore hau ur-emari handi samarra isurtzen ari zen Elortz ibaian, eta in situ ikusitako ezaugarriengatik isurtzen zuena gorozki-hondakinak zirela zirudien. Ur honetako lagin bat hartu zen ondoren laborategian aztertzeko (1. kolektoreko isurketa).

- Elortz ibaiaren eskuin ibarrean, zubitik gora 40 metro ingurura, beste kolektore batek isurtzen

du, ondoko lur-saileko lurren azpian bideratuta dagoen ubide txiki batean bildutako euri-urak zurrerik. Daraman ur-emaria zenbatekoa den finkatzea zail samarra da, ibaiaren maila berean ibairatzen baita. Garbi dagoela ematen du. Ur honen beste lagin bat hartu zen ondoren laborategian azterzeko (2. kolektoreko isurketa).

- POSUSA trenbidearen adar zaharraren ondoko zubian, materiala kargatzeko instalazio zaharretik adar honen trazaerarekin paralelo doan areka bat ibairatzen da. Azterketa egin zen egunean, areka honek ez zuen urik isurtzen Elortz ibaira, baina noizean behin ura isurtzen zuela erakusten ziren arrastoak antzeman ziren, eta isurketak euriaren arabera direla esan liteke.

- Trena kargatzeko instalazio zaharretan urak bildu eta ponpatzeko osin bat dago, eta goian aipatu dugun arekan isurtzen duen gainezkabide bat du osin horrek. Osinetik Elortz ibaira 375 metro inguru dago, eta osinean POSUSAKo instalazioetako "hegal erdiko" urak, edo isurketak biltzen dira, eta "hegal erdiko" urmaeletako ura ere biltzen omen da bertan, urmaelon gainezkabide batek osinarekin bat egiten duen areka batean isurtzen baitu.

Osinak hegal erdiko urmaeletara ponpatzen zuen ura antzina, baina gaur egun kenduta dago ponpatze-sistema eta, hala, aldian-aldian bakarrik isurtzen du ura gainezkabidetik Elortz ibaian sartzen den arekara.

Hegal erdiko isurketek gazitasun-maila bat izan dezakete, edo bestelako poluitzaileak izan ditzakete, iraganean ingurune horretan burutzen zen jarduera dela eta, eta egun bertan utzita dauden materialen ondorioz.

Hegal erdiko urmaeletan bildutako urak gatz-fabrikatik datoz eta gazitasun handia dute nonbait. Urok Gatzagaren baltsara eramaten dira bertatik. Edozein gorabeheraren ondorioz (eurite handiak, ponpatze-sistema matxuratzea, elektrizitate-hornidura etetea, eta abar) urmael honetako gatz poluitutako urak gainezka eginen balu, osinera helduko litzateke ur hori, eta hortik arekan barrena, Elortz ibairaino.

- Ibaian aztertutako gainerako tartetean ez zen isurketen inguruan aipatzekorik ikusi.

Isurketa hauek ez dute ibaiko ingurugiroaren gaineko kalterik eragin, 1. kolektoreak eragiten zituen unean-uneko ondorioak salbu, ibairatzen den lekuan arrego agertzen baita ura, baina gainerako urekin nahastu eta disolbatu ahala, desagertu egiten da arretasun hori handik metro gutxira.

1. kolektoretik gorako tarte batean Elortz ibai-ko ur-lagin bat hartu zen, ibaiko uraren kalitate-mailaren erreferentzia bat izateko.

Hona egindako azterketen emaitzak:

- 1. kolektoreak isuritako urak gorozki-hondakinak dira, eta aztertutako parametro guztietan kolektore publikoetarako finkatutako gehieneko maila onargarrien azpiko kontzentrazio-mailak eman dituzte. Kloruroei eta eroankortasunari dagokienez, baxuak dira hauen mailak, eta hala, gatz-poluziorik ez dagoela erakusten du horrek.

- Elortz ibaian hartutako ur-lagineko poluzioari dagozkion parametroak aztertu eta poluzio organikorik edo gatz-poluziorik ez dagoela ikusi da. Ateratako emaitzen arabera, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren A1 motako gainazaleko uretarako finkatutako kalitate-maila betetzen du Elortz ibaiko urak.

- Bigarren kolektorean bildutako laginean ez da jatorri organikoko poluzio-maila aipagarriarik antzeman, baina uretan agertzen den kloruro- eta eroankortasun-maila handiek gatz-poluzioa erakusten dute. Pentsatzekoa da kolektore honek lur gaziek lixibiatutako iragazketak edo isurketak ibairatzen dituela.

Martxoaren 26an Zerbitzu honekin harremanetan jarri zen POSUSA bere lurretan kokatutako hiriko hondakin-urak biltzeko eskualdeko kolektorea butxatuta zegoela jakinarazteko, eta baliteke gertaera honek Elortz ibaian aurreko egunean antzemandako isurketekin, gorozki-hondakinena ziurrenik, zerikusirik izatea.

Zerbitzu honek eskatu zion Iruñerriko Uren Mankomunitateari (MACP) kolektorea aztertu eta, hala balebakio, zegozkion neurriak hartzeko.

Egun horretan bertan egoeraren berri eman zuen MACPeK, ondokoa adieraziz:

- Beriaingo kolektore orokorra butxatuta zegoen POSUSAKo lurra zeharkatzen ditueneko tartean, eta hondakin-urek gainez egin zuten erregistrotako bateko gainezkabidean.

- Gainez egindako urek euri-uren areka batera iritsi ziren. Areaka honek bat egiten du Elortz ibaiak isurtzen duen euri-uren kolektore batekin, eta hala, horri zor zitzaion kolektore horretatik kanpo gorozki-hondakinak ikusi izana.

- Arazoaz jabetu bezain laister eskualdeko kolektoreko butxadura libratu egin zuten.

Martxoaren 27an berriro egin zen ikustaldia Elortz ibaiaren tarte horretara.

1. kolektoreak Elortz ibaiara ura isurtzen jarraitzen zuen, nahiz eta emari askoz txikiagoarekin, eta gainera, isurtzen zuen urak itxura garbia eta argia zuen. Euri-uren sarera isuritako ura izanen da ziurrenik, iragazketen, drenatzeen eta bestelakoen ondorioz.

3gn. Zein jarduketa burutu dituen edo burutzeko asmo duen Nafarroako Gobernuak gertatutakoa zuzentzeko.

4gn. Nafarroako Gobernuaren iritziz, zein prebentzio jarduketa burutu beharko liritekeen mota horretako gertakizunik berriz ere ez egoteko; izan ere gure ibaietako biziaren parte bat modu saihestezinean akabatzen dute gertakizun horiek.

Batetik, ibaietara zeharka isurketak eragiten dituzten butxadurak eragozteko prebentzio-neurriak areagotzeko eskatu zaio Iruñerriko Uren Mankomunitateari.

Era berean, "hegal erdiko" osinetan biltzen diren isurketak direla eta, prebentzio-neurriak hartzeko eskatu zaio POSUSA enpresari.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako naturguneei eta habitatei buruzko Planaren prestaketa dela-eta, Ingurugiro Departamentuak buruturiko lanei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako naturguneei eta habitatei buruzko Planaren prestaketa dela-eta, Ingurugiro Departamentuak buruturiko lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko Jose Javier Sanchez Turillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Nafarroako naturguneei eta habitatei buruzko Planaren prestaketa dela-eta, Ingurugiro Departamentuak buruturiko lanei" buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du onetsiriko mozioan eskaturiko dokumentua Parlamentu honi bidaltzeko? Noizko izango du Biltzar honek eskura Nafarroako Naturguneei eta Habitatai buruzko Plana, eztabaidatu, eta, hala badagokio, onetsi ahal izateko?

Nafarroako Gobernuak aurreikusita du Parlamentuari Naturguneei eta Habitatai buruzko Plan bat bidaltzea.

Jaun horrek jakinen duenez, habitat naturalen eta basa-fauna eta -floraren kontserbazioari buruzko 92/43/EEE Arteztarua aldarrikatu zenetik, Europan, Espainian eta Nafarroan Naturguneei eta Habitatai buruz hitz egitea Natura 2000 Sareaz hitz egitea da.

Nafarroako gaur egungo sareak ondoko babestutako hektareak ditu, adierazten den moduan banakatuta:

3 erreserba integral: 487 hektarea

38 erreserba natural: 9.171 hektarea

26 lekune natural: 896 hektarea

2 aisiarako natur eremu: 459 hektarea

14 A.P.F.S.: 2.815 hektarea

2 natur parke: 23.448 hektarea

Halere, Natura 2000 Sarean Nafarroarako proposatutako azalera 218.135 hektarea da, balizko babesgune bereziei dagozkienak, eta hegaztien 13 babesgune berezi horietan automatikoki barne hartuta daude Elkarterako Intereseko Leku (EIL) gisa.

Testuinguru honetan, Naturguneei eta Habitatai buruzko Planaren lanketak Natura 2000 Sarea-

renaldi bereko lanketa ere kontuan hartu beharko du.

Dena den, Natura 2000 Sarearen lanketa oso konplexua denez eta autonomia erkidegoen, Estatu Administrazioaren eta Europako Elkarte Ekonomikoaren arteko hainbat negoziaketa eskatzen dituen bezala, erritmoa motel samarra da, eta Espainiako autonomia erkidegoek, eta horien artean Nafarroak, Espainiako Estatuari igortzeko zuten epea bete duten arren, Europako Batzordeak Espainiako bioeskualdeak mugatzeko irizpideak berriro egokitzea erabaki berri du.

2.- Zer lan bukatu du, egiten ari da edo hasteko asmoa du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako Naturguneei eta Habitategi buruzko Plana prestatzeko?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, gainerako Espainiako Estatuarekin batera, elkarterako intereseko lekuen zerrenda eta hiru eskualde biogeografiko bakoitzerako Nafarroan dauden taxoiaren kokapena amaitu berri du. Lan honen nondik-norakoa ez da Europako Batzordeak proposatutako EIL bakoitzaren azterketa soilik izan; izan ere, horien balorazio ekonomikorako azterketei ere hasiera eman baitaie, adierazitako Sarea Nafarroan ezartzearen balizko kosturako hurbilketa den zenbatekoa ere aurreratuz.

Horrekin batera, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak parte hartzean oinarritutako politikari ekin dio bioaniztasunaren kontserbaziorako eta baliabide naturalen erabilera jasangarrirako Nafarroako estrategia bat lantzeko, bertan Nafarroan gaur egungo naturguneen eta habitaten sareak duen problematika argi eta garbi bilduz eta planak proposatuz Natura 2000 sarearen etorkizunean jasangarria egiteko.

Departamentuaren ustez, gaur egungo Nafarroako Naturgune Babestuen Sareak azalera txiki- txiki naturguneak eta gainerako lurraldearekiko harremanik eza ditu ezaugarritzat. Arazo honen aurrean eta Naturguneei eta Habitategi buruzko Plan egoki bat lantzeko xedez, Departamentuak gaur egun oso zatikatuta dauden naturguneak lotzen dituzten zeharbide berde eta ekologikoak sortzeko lanari ekin dio, eta hori guztia lurraldeotasun zabaleko gune eta espezieen sakabanatze naturala, populazioen truke genetikoak eta aroko migrazioa eta, epe luzera, aldaketa klimatiko posibleari erantzutea ahalbidetzen duen sarea eratu ahal izateko.

3.- Noizko aurreikusten da aipaturiko Plan hori aurkeztea eta jendeaurrean jartzea?

Arestian azaldutakoa kontuan izanda, zaila da datarik zehaztea, ikuspuntu teknikoari bagagozkio egokia gertatzen baita elkarte-mailako EILen hautaketari buruzko ahalik eta zehaztasun handiena eskura izatea; izan ere, eta Estatu kideek lehen proposatzen zituzten beste hainbat naturgune ez bezala, Europako Arteztarauak ezarri du EILak Parisko Gaikako Zentroak babestutako irizpide zientifikoetan oinarrituz Europako Batzordeak berak soilik hautatuko dituela, eta horren ondorioz, Nafarroak proposatutako gune eta habitatasun asko –eta zuk ongi dakizunez, Nafarroa hiru eskualde biogeografikoen mugan dago– erabat baztertuta geratzea gerta daiteke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Arrotxapeako Osasunetxeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Arrotxapeako Osasunetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko apirilaren 16ko 26. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko M^a Isabel Arboniés Foru Parlamentario andreak galdera egin du Arrotxapeako Osasun Etxeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbateko biztanleriari ematen dio osasun laguntza Arrotxapeako Osasun Etxeak, eta zenbat langilek egiten du lan osasun etxe horretan?

Apirilaren 1ean, osasun txartelerako eskubidea duen Arrotxapea-Antsoiango biztanleria 23.351 pertsonakoa da, honela banatuta:

– Arrotxapea: Helduak: 15.403

Haurrak: 2.049

– Antsoain: Helduak: 5.231

Haurrak: 668

Langileak:

– Arrotxapean: * 10 familia-mediku

* 2 pediatra

* 12 erizain

* 6 administrari

* Zeladore 1

– Antsoainen: *3 familia-mediku

* Pediatra 1

* 3 erizain

* Administrari 1

* Zeladore-administrari 1

– Bietarako: * Gizarte Langile 1

2.- Zer dotazio handitze planifikatu du Arrotxapearako, azken aldi honetan eman den biztanleri kopuruaren handitzea dela eta?

1.998ko urtarrilaren 1ean Arrotxapea-Antsoiango biztanleria 23.126 pertsonakoa zen, eta horrenbestez 225 pertsona gehiago dago hiruhileko honetan.

Urtarrilaren 1eko datarekin, plantilen konpentsazioko azterlana egin zen Nafarroa osorako, eta bertan eskualdeko biztanleria eta honen adin-piramidea oinarritzat hartuz eskualde oinarritzko bakoitzaren lan-kargen balorazioa eta plantila teorikoaren kalkulua gauzatu zen.

Adierazitako azterlanaren emaitzak ondokoak dira Arrotxapea-Antsoiango Eskualde Oinarritzko-rako:

| | Osasun txartelen batez besteko estandarizatua, lan-zamaren arabera. Hiriguneak-Nafarroa | Osasun txartelen batez besteko estandarizatua, lan-zamaren arabera. Arrotxapean-Antsoain | Plantilla teorikoa (mediku orokorren batez bestekoari eta pediatrian 1.100 osasun txarteli egokituz gero tokatuko litzatekeena) | Benetako plantilla | Aldea |
|-------------|---|--|---|--------------------|-------|
| F. medikuak | 1.574,6 | 1.411,7 | 11,7 | 13 | +1,3 |
| Pediatrak | 907,4 | 1.085,8 | 3,0 | 3 | 0 |
| | (1.100 osasun txartel jotzen da egokituz) | | | | |
| Erizainak | 1.465,1 | 1.440,6 | 14,7 | 15 | +0,3 |
| Adm./Zel. | 2.696,1 | 2.401,0 | 8,0 | 9 | +1 |

Datu hauen azterketak ondorio hauetara garmatza:

Une honetako plantila, lehen hiru hilabete hauetako 225 pertsonako handitzea kontuan hartuta ere, Nafarroako batez bestekoaren gainetik dago mediku orokorrei, erizainei eta administrari-zeladorei dagokionez, eta egokia da pediatrei dagokionez.

Hori guztia dela-eta, gaur egun dagoen pertsonalarekin une honetarako eta hurbileko gerorako pertsonalari dagokionez behar adinako marjina dagoela uste dugu, gaur egungo biztanleriari eta etorkizuneko hazkunde demografikoei behar bezalako arreta bermatzeko. Hilero burutzen dugun jarraipenak gertatzen diren hazkundeei buruzko informazio eguneratua emanen digu, eta aurreikuspenak betetzen badira, plantilak pixkanapixkana eta adierazitako hazkundearekin batera handitu beharko direla aurreikus daiteke.

3.- Zer aurreikuspen, plan eta jarduketa zehatz du Osasun Departamentuak Arrotxapean –eten-gabeko demografi hazkundera duen auzoa– osasun etxe berria egiteko?

Eraikitzeke lursailen uzteari buruz Iruñeko Udalak ematen duen erantzunaren zain gaude.

Duela urtebete baino gehiago eskabidea egin zen, Planeamenduko Zinegotziarekin izandako bilkuran. Orain arte, Udalak ez du lursailik eskuragarri dagoenik argitu.

4.- Zer epe aurreikusi du Arrotxapeako osasun etxe berria funtzionatzen has dadin?

Une honetan, Osasun Departamentua Udalarekin batera ari da lanean, Plan Partzial berriaren proposamena oinarritzat hartuz, hazkunde demografikoa espero den eskualdeek –Arrotxapea-Antsoain horien artean– behar dituzten osasundotazio berrien plangintzarako.

Antza denez, aurreikus daitekeen eskualdeko hazkundeak zalantzarik gabe beharko dituen ekipamendu eta osasuneko eskualde berriak birplan-teatu eta zehaztuko dira behin-betiko Plan Partzialean.

5.- Zer osasun-hezkuntza kanpaina aurreikusi dira auzorako, kontutan izanik badirela auzoan errealitate konplexua izan eta beraien arazoentzako aproposak diren hezkuntza-neurriak behar dituzten familiak?

EAPek bere gain hartutako gutxiengo etnikoen programarekin erlazioatutako zenbait hezkuntza-jarduera aurreikusita daude.

Antsoainen, Osasun Etxeko gizarte langileak laguntza eskaintzen dio Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari, desegituratutako familia-taldeekin erlazioatutako jardueretan.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

| | |
|--|---|
| <p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .</p> | <p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p> |
|--|---|